

Balorezko proposamena

Gure enpresak Stay Coin du izena eta atsedena hartzeko, euria egiten duenean ondo pasatzeko leku bat izateko edo besterik gabe lagunekin arratsalde pasa egoteko lokal batzuetan datza.

Zona desberdinetan egongo da banatuta lokala. Lo egiteko inguru bat egongo da amaka eta ohe bereziekin, gainera zinema moduko bat edukiko du kaskoekin entzuten dena zaratarik ez egoteko eta argiak itzalita egongo dira erosoago egoteko. Bestetik, bideojokuak jolasteko aukera dagoen gela insonorizatu bat. Azkenik, lasai hitz egiten egoteko leku bat telebistekin futbola edo beste edozer gauza ikusteko.

Stay Coin-ek duen berezitasun bat, izenak esaten duen bezala egoteagatik dirua edo beherapenak lortzen dira "Kaotiko" arropa-dendan. Telefonorako aplikazio baten bitartez lortuko da hau. Lokalean pasatzen duzun denbora geroz eta gehiago izan beherapen hobeak eta gehiago lortu ahalko dira, guk emandako kodigo bat sartuz. Beherapen hauek arropa dendan izango du eragina baina jatetxeetan beherapenak egitea pentsatu dugu ere.